

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

2887

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 18koa, Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkariarena, zeinaren bidez eraikitzekeko administrazio-baimena ematen da «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioaren proiekturako, Barakaldoko udal-mugaratean (Bizkaia).

Espedientea: 48-GE-Y-2024-00019.

AURREKARIAK

1.– Industria Administrazioiko Bizkaiko lurralde-ordezkariaren 2024ko uztailaren 22ko Ebazpenaren bidez (2024ko irailaren 11ko EHAA, 177. zk.), aurretiko administrazio-baimena eman zitzaion BESS Development 3 SL enpresak sustatutako «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioaren proiekturako, Barakaldoko udal-mugaratean (Bizkaia).

2.– Aldez aurretik, 2024ko maiatzaren 29an, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak proiektu horren ingurumen-inpaktuaren txostena egin zuen (2024ko ekainaren 26ko EHAA, 125. zk.), obrak kontratatzeke baldintza-orrietan sartu beharreko neurri babesle eta zuzentzaileak adieraziz, bai eta neurri horiek beteko direla bermatuko duen aurrekontuarekin hornituz ere.

3.– 2024ko urriaren 5ean, BESS Development 3 SL enpresak proiektu hori eraikitzekeko administrazio-baimenaren eskaera aurkeztu zuen, eta jatorrizko aurreproiektuarekiko funtsezkoak ez diren aldaketak sartu zituen. Aldaketa horiek, administrazio, erakunde eta hirugarrenen baimena dute, proiektuaren instalazioek beren ardurapeko ondasun eta eskubideei eragiten dien heinean. Aldaketa horiek honako hauek dira:

3.a.– Baimendutako lursailaren barruan sartzeko eta ekipoak banatzeko bidea aldatzea, lurzati-rako sarbide hobea eta aurreikusitako lanetarako mugimendu-eremu egokiagoa izateko.

3.b.– 13,2 kV-ko lurpeko linearen ibilbidearen aldaketa, ST Retuerto azpiestazioraino, enpresa banatzaileak ezarritako baldintzak betetzeko.

4.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu ziren:

– «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioa burutzeko proiektua, Barakaldoko udal-mugaratean (Bizkaia).

– Eragindako ondasun eta eskubideei dagozkien separatak.

– «BESS Retuerto» energia biltegitratzekeko instalaziorako uholde-arriskuari buruzko azterlana, Barakaldoko udal-mugarateko 9004 lurzatian, URA-Uraren Euskal Agentziaren txosten teknikoan adierazitako analisiari erantzuten.

– Aurreproiektuari egindako aldaketen eraginpean dauden ondasun eta eskubideen ardurapeko erakunde eta hirugarrenen baimenak, obrak egiteko baldintza teknikoak barne.

5.– 2024ko urriaren 28an, kontsultak egin zitzaizkien eraginpeko ondasunak edo eskubideak dituzten hurrengo administrazio publiko, erakunde eta enpresei, 48/2020 Dekretuaren 11. artikuluan

arabera, sustatzaileak aurkeztutako proiektuaren zatien separata teknikoei dagokienez, haien baimena eman edo uka dezaten, baldintza teknikoekin batera: Barakaldoko Udala, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen zuzendaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila, Enagas, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, Ministerio para la Transición ecológica y el Reto Demográfico, Red Eléctrica de España, Nortegas, Telefonica de España, eta URA-Uraren Euskal Agentzia.

6.– Kontsultak amaituta, jasotako txostenen hitzez hitzeko kopia bidali zitzaizkion BESS Development 3 SL sustatzaileari.

Red Eléctrica de Españak jakinarazi du proiektuak ez diela bere ardurapeko instalazioei eragiten.

Enagasen kasuan, proiektuaren sustatzaileak bidali du Enagasek gasbidearen bide-zor eremuari eragiteko emandako baimenaren ebazpena, proiektatutako obrak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen baldintza teknikoak gehituz, eta sustatzaileak adierazi du baldintza tekniko horiekin bat datorrela.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen zuzendaritzak jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dela Kultura Ondareari eraginik ikusten.

«Subdirección General de Infraestructuras e Integración del Sistema Energético del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico»-k jakinarazi du, bere saila ez dela «BESS Retuerto» izeneko proiektuaren instalazio elektrikoaren baimena izapidetzeko eskuduna.

URA-Uraren Euskal Agentziak jakinarazi du «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioaren proiektua ibilguen babes-eremutik kanpo dagoela, eta, beraz, proiektuak ez duela URA-ren baimenik behar.

Telefonica-k jakinarazi du «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioaren proiektua Telefónica-ren jabetzako telefono-lineari hainbat puntutan eragin diezaiokeela, eta telekomunikazio-lineen paralelismoei eta gurutzaketei buruz indarrean dagoen araudia, bereziki, goi-tentsioko eta behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoak betetzen badira, ez diola ukorik egingo proiektuari.

7.– «BESS Retuerto» proiektuak sarbide-baimena du, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresa banatzaileak 2023ko uztailaren 21ean emandakoa.

8.– Eraikitzekeko administrazio-baimena eskatzeko espedientea aztertu ondoren, «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioaren proiekturako, Barakaldoko (Bizkaia) udal mugartean, Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaritzako energia arloko zerbitzu teknikoek eskaeraren aldeko txostena egin zuten.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Ebazpen hau Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkariek eman du, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Espedientea izapidetzerakoan, honako arau hauetan ezarritako izapideak bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoaren instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituen; Eusko Jaurlaritzaren 48/2020 Dekretua, mar-

txoaren 31koa, zeinaren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

Adierazitako oinarri juridikoekin eta aplikazio orokor zein berariazko aplikagarri diren gainerakoak ikusita, eta ordezkari honetako energia arloaren txostenarekin bat etorritik, Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkariek honako hau

EBAZTEN DU:

Eraikitzekeko administrazio-baimena ematea BESS Development 3 SL enpresari, «BESS Retuerto» izeneko baterien bidezko biltegitratze-instalazioaren proiekturako. Proiektua Barakaldoko udal-mugar-tean (Bizkaia) kokatuta dago.

Proiektuak honako instalazio hauek hartzen ditu:

a) 17 bateria-edukiontzi, guztira 85,27 MWh-ko kapazitatea dutenak, ferrofosfatozko litiozko bateriez osatuak. Edukiontzi bakoitza 5,016 MWh-ko potentzia unitarioakoa da.

b) 6 inbertsore, guztira 26,34 MW-ko potentzia nominalekoak. Inbertsore bakoitzak 690 V-eko tentsio nominala eta 4,39 MW-ko potentzia unitarioakoa da.

c) 3 transformadore, guztira 26,34 MVA-ko potentzia nominalekoak, eta linea- eta babes-gelaxkak. Transformadore bakoitza, 0,690/30 kV-ko transformazio-erlazio eta 8,78 MVA-ko potentzia unitarioakoa da.

d) Babes- eta neurketa-zentroa eta zerbitzu osagarrietarako zentroa. Zentroa babes- eta neurketa-gelaxkek, eta zerbitzu osagarrien transformadoreak osatzen dute. Transformadorea 0,420/30 kV-ko transformazio-erlazioa eta 75 kVA-ko potentzia nominalekoa da.

e) 30 kV-ko ebakuazio-linea, 300 m inguru luzerakoa, 30 kV-ko babes- eta neurketa-zentroa, proiektuaren plantan kokatutakoa, «Retuerto» azpiestazioarekin konektatzeko. Linearen ibilbidea lurpekoa da, Barakaldoko udal-mugar-tean (Bizkaia).

Ebazpen hau ematen da 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baldintza orokor hauek kontuan hartuta:

1.– Obrak egiteko, onartutako proiektua bete behar da, kasu bakoitzean eskatu eta baimentzen diren aldaketak eginda. Halaber, obrak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak 2024ko maiatzaren 29an egindako, eta 2024ko ekainaren 26ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 125. zenbakian argitaratutako ingurumen-inpaktuaren txostenean ezarritakoaren arabera burutu behar dira.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu ez bada, ebazpen hau iraungitza ahal izango da. Nolanahi ere, sustatzaileak abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren –Ukraina eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen– 28. artikuluan xedatutakoa baliatu ahal izango du, behin betiko ustiatzeko eta abian jartzeko baimena lortzeko administrazio-mugarriaren luzapenari dagokionez.

3.– Lanak amaitutakoan, eta araututako egiaztapenak egin ondoren, instalazioen titularrak Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaritzari jakina-

razi beharko dio lanen amaiera, behin betiko ustiatzeko eta abian jartzeko baimena eman dezan. Horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu. Era berean, Ekoizpen Elektrikoko Instalazioen Administrazio Erregistroan inskribatu beharko da, instalazioa zerbitzuan dagoenean.

4.– Ebazpen hau ematen da obrak egiteko behar diren udal- eta probintzia-eskumenetako eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere, eta horiek aparte utzi gabe, eta bereziki lurraldearen antolamenduari eta ingurumenari dagozkienak. Eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Kasuan kasuko baimenak, lizentziak edo baimenak izapidetzeak edo sustatzaileak onartutako baldintza teknikoak betetzeak instalazioa burutzeko proiektuan funtsezko aldaketak eragiten baditu, edo aldaketa horiei ingurumen-ebaluazioa egin behar zaiela erabakitzen bada, dagokion baimena eskatu beharko da.

5.– Ebazpen hau emateko baldintza izango da autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak aldeko erabakia ematea lurzoruaren kalitatearen arloko adierazpen-prozeduren esparruan.

6.– Jarduera uzteko, instalazioa ixteko alde aurretiko administrazio-baimena beharko da. Horretarako, eskaera egin beharko da, justifikazio-memoriarekin, plano eguneratuekin eta instalazioa eraisteko planarekin batera. Plan hori ingurumen-inpaktuaren txostenean ezarritako baldintzetara egokitu beharko da, eraiste-fasean ingurumena lehengoratzeari dagokionez.

7.– Sistemaren operadoreak ezartzen dituen arau teknikoak eta jarduteko prozedurak bete beharko dira.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakiok Industriako, Trantsizio Energetikoko eta Jasangarritasuneko Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Bilbao, 2025eko ekainaren 18a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkarria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.